ASTEKARIA | 2016ko urtarrilaren 8an | XIX. urtea | USURBIL | 641. zenbakia | www.noaua.eus

TOKIKOM

# noaua




**U9ko manifestaziora joateko autobusak antolatu dituzte**

**Hasieraz onartu da 2016ko udal aurrekontua**

**Ahalduntze ikastaro berri bat hasiko da laster**

# Ziztu bizian igaro dira Eguberriak



URDAIRA
Sagardotegia
Urtarrilaren 16an, LARUNBATA
IREKITZEN DUGU!!!
astelehenak itxita
URDAIRA
Aginaga 943 37 26 91




FUNERARIA
GONZALEZ
EHORZTETXEA
munalurra 8, USURBIL
OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).
MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA
943 36 21 63 (24H)
·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK
www.funerariagonzalez.es




Lehenengo 6 erosleentzako, garaje bikoitza banakako prezioan!
ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA
188.000 € tik
12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpin
• Etxebizitza argitsuak.
• Terraza handiak.
• Lorategidun behe solairuak.
• Primerako kalitateak.
• Diseinuzko materialak.
USURBILEN
VIVIENDAS LANIN S.L.
Lazkano Pasealekua, 1º Behea
20009 Donostia
E.:contacto@viviendaslanin.com
943 46 88 60
www.viviendaslanin.com

## Albistea iruditan

# Euskal presoak etxeratzeko harriari tiraka

*Ezetz mugitu* esatea nahikoa izan zen, "desapiyuari" aurre egin eta proba aise gainditzeko. Olatz, Patxi, Xomorro eta gainerako euskal presoak etxeratzea eskatzeko Dema plazan dagoen 1.800 kiloko harria mugitzeko erronka jarria zuen aurreko igande eguerdirako, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak. Harriari tira egiteko sokaren bueltan lotu ziren herritarrek aise mugitu zuten ordea, plazan dugun harrietako bat. Erronka, elkarlanean erraz asko bete zuten. Hori nahikoa ez eta, gainera, harria Dema plazatik frontoirantz mugitu ostean, bere lekuan jartzeko sasoia soberan zutela erakutsi zuten. Ekimen honekin, larunbaterako Bilbon eta Baionan deitu dituzten mobilizazioei atxikimendua adierazi zieten herritarrek.


**Larunbat honetan Bilbon eta Baionan egingo diren ekitaldiak babestu dituzte.**

**Mobilizazioak larunbatean**

Urtarrilaren 9an arratsaldeko 17:00etan, euskal preso, exiliatu eta deportatuen eskubideen alde manifestazioak deitu dituzte Sarek eta Bagoazek "Mugi daitezen harriak" lemapean, Bilbon eta Baionan. Dagoeneko atxikimendu mordoa jaso duten hitzorduotarako, urtero moduan, autobus zerbitzua antolatu da Usurbilen.

Zerbitzu bikoitza; lehenengoa, goizeko 10:30etan Oiardo Kiroldegitik abiatuta. Bigarrena, gune beretik baina 15:00etan abiatuko dena. Goizeko zerbitzurako izen emateko zerrenda Irrati tabernan dago. Bordatxon, Zendoian, Txiribogan eta Aitzagan (tabernan eta elkartean) aldiz, arratsaldeko autobusetan apuntatzeko orriak.

Informazio gehiago: bagoaz.eus edo sare.eus

## Laburrean

### "Lanbideak", Inauteri Festarako mozorroa

Hilabete baino ez Inauteri Festarako. Gogoan izan, lan mundua mozorrotu nahi dugu otsailaren 6rako antolatzen ari garen jaialdian. Lanbideak ditugu, zuen laguntzaz hautatu dugun gaia. Jantziak prestatzeko hilabete baino ez duzue.

### Astelehenean, odol ematea

Gabonak tarteko, oraingoan astebete atzeratu du Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak, odol emateko eguna. Honenbestez, ohi bezala urtarrileko lehen astelehenean ez, bigarrengoa izango dugu odol ematea. Urtarrilaren 11n, 18:00-20:30 artean anbulatorioan.

### Ordenantza fiskalak, behin betiko onartuak

Alegazioak aurkezteko epearen baitan ez da erreklamaziorik aurkeztu, eta honenbestez, automatikoki behin betiko onartu ditu Usurbilgo Udalak. Gogoan izan 2016rako zerga ordenantzetan igoerarik ez duela aplikatuko Usurbilgo Udalak.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI

Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.**



**Aritz Gorriti**

# Bakarra al naiz?

Eguberri on edo eguberri off (uff...), bietako zein hautatuko zenuke zuk, bizi izan dituzun azken asteok deskribatzeko? Neronek esango nuke, itxuraz behintzat, gehiengo handi batek eguberri on aukeratuko lukeela. Baina benetan ari al gara? Agian bai, agian...

Herritar batek deskribatzen zidan aurrekoan, asteok eragiten dietena. Haserre senti–tzen omen da munduarekin, eguberritzat jotzen ditugun asteok iraun artean. Gabonak pasa ahala adiskidetzen omen da berriz inguratzen duen guztiarekin. Identifikatua sentitu nintzen. Eguberriek deituriko hauek estresa, antsietatea ere sortzen omen die bati baino gehiagori. Ospatu nahiak baino, ospatzeko gogorik edo zer ospaturik izan ez eta ospatu "beharrak" ziur aski.

Ez baita erraza izaten giro horretatik ihes egitea. Merkatal gune handietara joan, eta urritik jada gabonetan daude. Abenduko "zubia" pasa eta berehala hasten dira heltzen, eskatu gabe ere, emailez iristen zaizkigun gabonetako postal "zoriontsuak". Eta prestatzen joan, argi, zuhaitz eta bestelakoak, bestela etxea hotz eta ilun samar geratuko zaizu. Eta erosketak. Zenbat buelta hara eta hona, agortzear den jostailu eta bestelakoen bila. Urteak, oparitzeko egunik izango ez balu bezala. Eta jan edan mordoa zain mahaian. Berdin dio gose izan edo ez, mahaian aurrean duzuna jasan edo ez, urtean behin bada ere, bakea behar dugu eta. Beraz, isildu, eseri, jan eta edan. Eta topa, urtean zehar alkohola ezkutatzen duten telebistako aurkezleen antzera. "Biziago" ageri dira egunotan.

Gabonen magia izango da. Mugarik ez duen magia, mundua ere geratzen baita egunotan. Pentsa, ogirik ere ez dugu zenbait egunetan. Poteoa 21:00etarako amaitu eta denok etxera. Etxeratzeko abisua egongo balitz bezala. Eta magikoena, jasanezina jasangarri bihurtzen digute eguberriek. Gosea aseezin. Erosketak eromen. Eta patrikak zuloz betea amaituta ere, gabonak dira eta urtean behin... kalterik ez antza. Eta gero tramitezko galderak... Eguberri gaua nola pasako dugun. Urtezaharreko gaupasan, urte berri ona ahotik ezin kendu. Diskurtsoaren parte dira egunotan, ez martxoaren 22an edo azaroaren 29an.

Gutako bakoitzak aukera–tzen dugu une bakoitza nola bizi nahi edo ahal dugun. Eguberri off-ak dira neureak. Eta ez pentsa, ospatzeko errazak ez diren arren, eguberriok ere badute opari txiki edo handi bat; urtarrilaren 7a. Bakarra al naiz?

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | Idoia Torregarai | Luis Aranalde

# "Nekazaritza egiten hasi zenetik, gizakiak ilargiaren eta kosmosaren eragina hartu du kontuan"

Alkartasuna Kooperatibak, Kimu Bat dendak eta Argiak *Ilargiaren egutegia*ren edizio berria plazaratu dute. Aurtengoa, Pello Zabalaren esaerekin osatzen da. Durangoko Azokan, Argiako postuan egon zen salgai eta agortu egin zen. Edizio berri bat egin behar izan dute. "Ilargiaren egutegia 2016" Alkartasuna Kooperatiban eta Usurbilgo ohiko saltokietan aurkituko duzue 3 eurotan, eta bestela alkartasuna.eus atarian ere egin daiteke erosketa (7 euro, bidalketa gastuak barne).




**Egutegia ohiko saltokietan eta Alkartasunan bertan eskura daiteke.**

Puri-puri dagoen korrontea izan arren, egutegia biodinamikoarena ez dela gauza berria adierazi zuen Xabier Akizuk Potxoenean eginiko aurkez–pen ekitaldian. "Nekazaritza egiten hasi zenetik, gizakiak ilargiaren eta kosmosaren eragina hartu du kontuan". Eta aurkezpen ekitaldian, egutegi biodinamikoari buruzko hainbat azalpen eskaini zituen.

### "Landarea ez da bakarrik lurrari esker hazten"

Argudio hori eta beste hainbat entzun ditzakezue Jakoba Errekondo eta Xabi Akizuren ahotan. Gure web orrian topatuko duzue bideoa, noaua.eus helbidean, edo argazki ondoko QR kodea baliatuz bestela.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: urtarrilak 15. Idatzia ekartzeko azken eguna: urtarrilak 11.

# Maialen Garagarza eta Joseba Larratxeren diseinua izango du Herritar Txartelak

2016an esku artean izango dugun Usurbilgo Herritar Txartelak badu jada bere irudia; Dema plazako lurzoruko harriena. Abenduaren 31ko 6. Hurbilago San Silvestre Herri Lasterketaren amaieran eman zuten ezagutzera, txartel berriko izena eta irudia hautatzeko, azken hilabeteotan antolatu den txapelketako lan saritua.



Herritar Txartela udaberrian egongo da eskuragarri.

Herritarren bozkek erabaki dute, ondoko argazkiko diseinua izango duela txartel berriak. Diseinuaren egileak, txapelketako irabazleak honenbestez, irudikoak dituzue; Maialen Garagarza eta Joseba Larratxe herritarrak. 500 euroko saria irabazi dute. Zorionak!

### Udaberri parterako eskuragarri

Herritar Txartel berriaren diseinu lehiaketara, 18 lan aurkeztu ziren guztira. Horietatik 3, epaimahai batek hautatu zituen. Eta hiru lanotako baten alde bozkatzeko aukera izan zenuten abenduko lehen hamabostaldian. Herritarren babesik handiena izan duena, eta honenbestez Herritar Txartel berriaren irudia zein izango den badakigu jada.

Abiatu berri dugun 2016. urtean eskuratu ahalko da, erosketak ordaindu edota Usurbilgo udal zerbitzuetan identifikatzeko baliatu ahalko duzuen txartel berria. Egitasmoa bideratzen ari diren Hurbilago Elkarteak eta Usurbilgo Udalak, aurrerago emango dituzte zehaztasun gehiagoren berri.

### Hiru saritu, Gabonetako Zozketan

Hauek izan ziren, San Silvestre Herri Lasterketa amaieran eginiko zozketako zenbaki sarituak:
1-Mendiko bizikleta: 195.891.
2-Telebista: 199.069.
3-Sukaldeko tresneria: 203.803.

Zenbaki sarituen jabeek, jo dezatela Hurbilago Elkarteko edozein saltokietara, zenbaki saritua eskutan dutela noski.

# 80 urteko aginagarrei omenaldia

Joan den azaroaren 29an ospatu genuen Aginagako Arrate Egoitzan, aurten 80 urte bete dituztenen omenaldia. Juanita Furundarena eta Patxi Usarralde izan ditugu omenduak. Esan behar, elizaren berrikuntzaren ondoren lehen meza ospatu genuen, Usurbilgo abesbatza bertan zela, ospakizunean laguntzen eta dotoretzen. Gainera, bataioko ponte zaharra, 1817koa baztertua zegoena, aldare hegalean jarri digute eta Gari Maioz Garridoren bataioarekin inauguratu zen. Dena oso polita izan zen.


Arrate elkartean egin ziren karta jokoetako txapeldunak.

Maria Luisa Alargunsoro eta Benantxi Ugartek ere izan zuten oparitxo bat laurogeitahamar urte baino gehiago izateagatik. Xabier Arregi alkatea eta Iñaki Ugarte zinegotzia izan ziren gure artean eta egun ederra pasa genuen. Bestalde, egoitzan ospatu zen karta jokoko irabazleak dituzue argazkian, ezkerretik hasita: Kontxita eta Miren (puntuan), Joxe Mari eta Maria Angeles (musean), Maritxu eta Lurdes (argazkian falta da) (eskoban), eta azkenik, Ixiar eta Julian (tutean). Urte berri on!

**Mari Angeles Arruti, Aginagatik**

## Igandeko Tipi Tapan, barazkiak

Bapo jateko aukera bikaina, urte berri honetako lehen Tipi-Tapan. Igandean, urtarrilak 10, gerturatu Artzabal, Bordatxo, Txirrista, Aitzaga eta Txiriboga tabernetara eta dastatu 2 euroren truke, guneotan sukaldaturiko zizka-mizka bereziak eta edaria.

Ohi bezala, Hurbilago Elkarteko saltokietan xahutu beharreko 150 euroko saria eta 2 lagunentzako afaria zozketatuko dira pintxo festa amaieran, 15:00etan. Horretarako, ibilbide gastronomiko osoa egin behar da: bost tabernetako zigiluak lortu eta zuetako edonor izan liteke hurrengo saritua.

## "Borondateen Kriseiluak" ekitaldia, atzeratua

Segurtasun arrazoiengatik, Gure Esku Dagok abenduaren 31rako iragarria zuen hitzordua atzeratzea erabaki zuen. "Azken egun hauetan ekimena ez gauzatzeko gomendioa iritsi zaigu suhiltzaile nahiz instituzio ezberdinen partetik eta gomendio hauei kasu egitea iruditu zaigu egokiena", ohartarazi zuen taldeak.

**Eguna, zehazteke**

'Borondateen kriseiluak' ekitaldia ospatuko da halere, aurrerago. Data zehazteke dagoen arren, kriseiluak erosten segi ahalko duzue Lizardi liburu dendan, 2,5 euroren truke, "baina hauek zuen kabuz ez aireratzea eskatuko genizueke, arriskutsua izan baidaiteke. Ekimenerako data berria zehazten dugun bezain laster izango duzue gure berri".

# Hasieraz onartu da 2016ko udal aurrekontua

ARLO SOZIALEAN EZ DELA MURRIZKETARIK EGINGO ADIERAZI DU EH BILDUREN UDAL GOBERNUAK

2016ko udal aurrekontuak. Hori izan zen abenduaren 23ko plenoko gai garrantzitsuena. EH Bilduk aurkeztu duen proposamenak ez zuen oposizioaren oniritzia jaso. EAJ eta PSE aurka agertu ziren baina, hala ere, hasieraz onartu da udal gobernuak plenora eramandako proposamena. 15 egunez egongo da jendaurrean.

Aurrekontuen lanketa urrian hasi zen. Hala adierazi zuen Xabier Arregi alkateak. Urriaren 27ko udalbatza plenoan zerga ordenantzak onartu ziren eta, ñabardura batzuk salbu, udal gobernuak aurreko zergak eta tasak bere horretan mantentzea erabaki zuen.

"Gerora lanketa bat egin da arloz arlo, sailez sail, eta lanketa hori udal teknikariekin batera egin da", alkateak aditzera eman zuenez. Era horretan finkatu dira beharrak eta lehentasunak. "Eta teknikarien partehartze horrek ekarri du sarrerak ondo finkatzea eta gastu-banaketa egoki bat egitea".

Abenduaren 2ko Ogasun Batzordean udal aurrekontuen lehen proposamena aurkeztu zitzaien udal taldeei. Eta abenduaren 17an egin zen batzordean, PSE-EEk eginiko proposamenak hartu ziren kontuan. Xabier Arregik publikoki eskertu nahi izan zuen Fermin Orue-Echevarria zinegotzi sozialistak egindako ekarpenak.

Nahiz eta Ogasun Batzorde horretan PSE-EEko zinegotziaren proposamen guztiak ez ziren aurrekontuetan islatu, "asko ez zirelako aurrekontuetan zehatz-mehatz jasotzekoak", aurrera begira oso kontuan hartzekoak direla aipatu zuen EH Bilduko alkateak. Eta etorkizuneko udal aurrekontuetan jaso daitezkeela adierazi.



**Abenduaren 23ko ez-ohiko udalbatza plenoan aztertu eta bozkatu zen 2016ko udal aurrekontu proposamena.**

*XABIER ARREGI*

***"Pertsonengan eta herri bizian inbertitzeko aurrekontuak dira hauek (...). Gure etorkizuna hipotekatuko ez duen udal aurrekontua". Egoera ekonomikoaren aurrean,"arduraz jokatzera behartuta gaude. Ditugun baliabideak ondo kudeatuz"***

## Herritarren ekarpenak biltzeko ahalegina

Garai beretsuan, udal gobernuak bilera irekiak egin zituen herri eragileekin eta herritarrekin. Guztira zortzi bilera izan ziren. Alkatearen esanetan, "oso bilera emankorrak izan dira" eta herriko eragileek eginiko ekarpenei ere aurrerantzean toki egingo zaiela adierazi zuen.

## Aurrekontuen izaera

"Pertsonengan eta herri bizian inbertitzeko aurrekontuak dira hauek". Are gehiago, "gure etorkizuna hipotekatuko ez duen udal aurrekontua" dela aitortu zuen EH Bilduko alkateak. "Dugun egoera ekonomikoaren aurrean, arduraz jokatzera behartuta gaude. Ditugun baliabideak ondo kudeatuz".

Alkatearen esanetan, "aurrekontu eredu honek ez du handikeriaz jokatu nahi eta fokoa pertsonengan eta herri bizian ipini nahi izan dugu". Eta aurrekontuak kudeaketa eraginkor baten bidez bideratuko direla nabarmendu zuen.

## Zerbitzu publikoen sustapena

Usurbilgo Udalak aktibo inportante bat duela dio udal gobernu taldeak. "Eta hori giza-kapitala da". Herriari eskaintzen zaizkion zerbitzu asko eta asko baliabide propioen bidez ematen dira, "eta hori gure bereizgarri bat da. Horregatik, erraz ulertzen da gure aurrekontuetan Pertsonalgoaren kapituluak hainbesteko pisua izateak".

## Ongizatea bermatzea

Herritarren baldintza egokiak ziurtatzea ez da kapitulu jakin batean bakarrik jasotzen. Alkateak plenoan adierazi zuenez, "aurrekontu osoan iradokitzen da izaera hori. Usurbildar guztiak hobeto bizi gaitezen, eta premia gehien dutenei zerbitzu egokiak eta aukerak eskainiz". EH Bilduk zuzentzen duen udal gobernuaren esanetan, "aurrekontu hauetan ez da murrizketarik egiten arlo sozialean. Eta gure egiten dugu murrizketarik ez egiteko jokaera".

## Arreta ona emateko konpromisoa

Udal funtzionamendu egokiari garrantzia eman nahi zaio. Eta horrek bere isla izango du 2016ko udal aurrekontuan. Etxe barruko funtzionamendua hobetzeko ekipo informatikoak erosiko dira, web orria berritu, udal ibilgailu berriak eskuratu, inbentario bat egin... Herritarrei arreta eta zerbitzu hobea eman asmoz.

# Inbertsioen artean: Irazu kalea urbanizatu, Erroizpeko urtegia egokitu eta Musika Eskolaren birgaitzea bideratu

Inbertsioek garrantzia handia dutela esan zuen alkateak. Udal gobernu honek pertsonengan eta herri bizian inbertituko duela aurreratu zuen. “Inbertsioa derrigorrez hormigoiari lotuta dagoela dirudi, baina herri honetan sozial, kultural edota kirol arloko eragile asko dago. Oso aberatsa da horretan herri hau, eta horiengan inbertitu behar dugu. Talde horiei bultzada eman behar zaie beren jardunean jarrai dezaten”.

## Inbertsioak

■ Herriko taldeen lana bultza–tzeko, esate baterako, 300.000 euro aurreikusten dira.

■ Zumarte Musika Eskola birgaitzeari begira, proiektu bat egingo da 2016an eta 2.000 euroko partida jaso da.

■ Plan Orokorrak lehentasunezko izaera du legealdi honetan, eta horretarako 55.000 euro aurreikusten dira (soilik erredakzioan, pertsonal gastuak aparte doaz).

■ Irazu kalea urbanizatzeko 205.000 euroko partida gorde da.

■ Erroizpeko urtegia egokitzea, behar bereziak dituztenei begira kiroldegiko aldagelak egokitzea… Bestelako inbertsioen artean daude asmo hauek.

“Izaera sozial hori indar–tzea, indar bizi hori sustatzea”. Laburbilduz, horiek izango dira 2016ko udal aurrekontuen gako nagusiak.

## Bestelako gaiak

Abenduaren 23ko ezohiko udalbatza plenoan, Antolakuntza Batzorde Informatzailea eratzeko puntua ahobatez onartu zen. Eta Lanpostuen eta Plantilla Organikoaren zerrenda onartu zen, EH Bildu eta PSEren aldeko botoekin. EAJk abstentziora jo zuen. Datozen asteetan zehar, EH Bildu eta oposizioko alderdien balorazioak batzen saiatuko gara.



**Zumarte Musika Eskola birgaitzeari begira, proiektu bat egingo da 2016an.**

# Oposizioko alderdiak, aurka

Aurrekontu hauei ekarpenak edo emendakinak egiteko denbora faltaz kexu azaldu ziren oposizioko bi alderdiak. Informazioa formalki oso berandu jaso zutelako. Josune Urkola EAJko zinegotziaren esanetan, abenduko Ogasun Batzordean luze zabal hitz egin zuten, baina ordutik hona EH Bilduk plenora eraman dituen aurrekontuetan ez dagoela aldaketarik aipatu zuen. “Guk kontra bozkatuko dugu. Aipatu duzuen guztiarekin ados egon arren, kontinuistak direla iruditzen zaigulako, aurreko urteetatik datozen berberak”.

## EAJ-PNV, inbertsioekin kexu

Inbertsioekin bereziki kritiko agertu zen alderdi jeltzalea: “inbertsioetan ez dugu gauza handirik ikusten”, halaxe aitortu zuen Josune Urkola zinegotzi jeltzaleak. “Gizatasunean inbertitzea oso ondo dago, eta horregatik diozue pertsonalgoari eskainitako partida dela hain handia, baina aurrekontu hauek ezin dute pertsona batzuentzat bakarrik izan. Herri osoaren–tzat baizik. Beste inbertsio batzuk egingo balira, herri osoari begira…”.

Planifikazio gutxiko aurrekontuak direla ere esan zuen Josune Urkolak, eta horregatik aurkako botoa emango zuela aurreratu zuen EAJko bozeramaleak.

Kontuhartzaileari eta udal idazkariari zuzenduz, Josune Urkolak hauxe galde egin zuen: “txostenean ez dugu ikusi Berdintasunaren Legea betetzen den ala ez”. Udal idazkaria zalantzati agertu zen eta ez zuen erantzun argirik ematerik izan.

## PSE-EE ere, aurka

EAJko ordezkaria bezalaxe, PSEko zinegotzia ere kexu agertu zen, denborarik ez zela izan aurrekontuak behar bezala aztertzeko. Bere ekarpenak ez zirela aurrekontuan jaso aipatu zuen eta horregatik aurka azaldu zen bozketan zinegotzi sozialista. Hurrengo urterako, aurrekontuekin lehenago hastea proposatu zuen Fermin Orue-Echevarriak.

Alkateak kontuan hartu zituen PSE eta EAJren proposamenak, aurrekontuen lanketa lehenago hasteko iradokizuna bere eginez.

# Santo Tomas azoka, udazken giroan

Bozketa eguna izan arren, jendea erruz batu zen Santo Tomas azokan. Giroa ere halakoxea zen, kaxkora hurbiltzeko modukoa. Sagardoa dastatu, taloa edota gaztainak jan, gozoa erosi, babarrun zein txerriki postuak bisitatu… Gaztetxoentzat ere ekitaldirik izan zen. Dema Plazan, Ixabel Agirresaroberen kontakizunekin gozatzeko aukera.

Ohi bezala, postu ugari eta era ezberdinetakoak egon ziren: errauste-plantaren aurkako sinadurak biltzeko mahaia edota Nafartarrak-en otarrak eskuratzeko postua. NOAUA!k ere mahaia ipini zuen eta photo-call delakoan jendetza batu zen euskararen aldeko argazkia ateratzera. Gure web orriko Argazkitegian topatuko dituzue argazkiak, noaua.eus helbidean.



Gero eta gehiago dira Usurbilgo Santo Tomas egunean baserritarrez janzten direnak.

### 139, NOAUA!ko zenbaki saritua

*Fotokolen* argazkia atera zutenen artean zozketa egin genuen eta 139 izan zen zenbaki saritua. Saria, Erri Gorako saskia. Zozketa unean ez zen irabazlea agertu. Zenbakiaren jabe bazara, NOAUA!tik pasa saski bila.

### 49 babarrun ekoizle, 17 sagardo-egile

Babarrun eta sagardo lehiaketetan, Jose Kruz Matxain eta Arkaitz Portularrume nagusitu ziren, hurrenez hurren. Iaz ere, Jose Kruz Matxainek eraman zuen babarrun ekoizle onenaren txapela.

Eta bitxikeria gisa, bi lehiaketetan Manuel Aizpurua Ibai-Ertz etxekoa geratu zen hirugarren. Aginagakoak esku ona du bietarako, babarrunak egiteko eta sagardo ona ekoizteko.




Basatxerriko puzgarriak arrakasta handia izan zuen.

### 10.200 euro batu dituzte Xiberoako ikastolen alde

Nafartarrak taldeak bideratu zuen, beste behin ere, Xiberoako Ikastolen aldeko kanpaina. Otarren salmentaren bidez, 10.200 euro batu zituzten, inoizko gehien, eta batutako dirua eskura eman zioten Xiberoako Ikastolen lehendakariari. Emandako laguntzagatik, eskerrak eman zizkien usurbildarrei.



Xiberoatik hainbat ordezkari Santo Tomas azokara hurbildu ziren saria jasotzera.

### Babarrun Lehiaketa

- 1. Jose Kruz Matxain, Olarri baserria.
- 2. Eneko Bereziartua, Etxe Maite (Aginaga).
- 3. Manuel Aizpurua, Ibai-Ertz (Aginaga).

### Sagardo lehiaketa

- 1. Harkaitz Portularrume, Agerre-Txiki.
- 2. Mila Aizpurua, Juanantzonea.
- 3. Manuel Aizpurua, Ibai-Ertz (Aginaga).


aek euskara praktikoa
Garena ikasteko
para entendernos
pour se comprendre
EUSK AHAL DUN!
Sara Cozar
Eman izena
Eskolak
Mintza praktika
Barnetegiak
On-line
Autoikaskuntza
Normalizazio planak
Titulu homologatuak
30 urtean, 50.000 lagunek
ikasi dute euskara
gure 100 euskaltegietan
aek
607 609 379
usurbil@aek.org
www.muntteri.blogspot.com.es
Usurbil
ETUMETA AEK
Kale Nagusia,
45 behea
20170 USURBIL

# “Daramagun motxila arintzen laguntzen du”

## PAREKIDETASUN SAILAK ANTOLATU DUEN AHALDUNTZE IKASTAROA URTARRILAREN 21EAN HASIKO DA

Emozioak partekatzeko konfiantza gunea. Kritika edo epaiketatik libre dagoena. Barrua askatu, eta bizkar gaineko motxila arintzeko lagungarria. Eta baliagarria, norberak bere burua ezagutu eta besteengandik ikasteko. Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak, emakumeei zuzenduta, azken urteotan antolatu izan diren Pepa Bojok bideraturiko ahalduntze saioek honetarako eta askoz gehiagorako ematen dutela diote, orain arte ekimenotan parte hartzen aritu diren Josune Estella eta Garbiñe Zaldua herritarrek. Emakumeak urtarrilaren 21ean abiatzekoa den ikastaro berrian izen ematera animatzen dituzte.

**Nolatan animatu zineten ahalduntze ikastaroetan parte hartzera?**

**Garbiñe Zaldua:** 2013-14 ikasturtean hasi nintzen kasualitatez. NOAUA!n tailerraren izenburua irakurri eta atentzioa deitu zidan. Parte hartzen hasi nintzen. Adin guztietako emakumeak ginen. Hasieran harrituta nengoen. Saio bateko kontua izan zen ordea. Pepa Bojo ezagutu eta esaten zuenak lotu ninduen tailerrera hasieratik. Bi urtez egon naiz. Deskubrimendu bat izan da neuretzat.



Garbiñe Zalduak eta Josune Estellak eman dizkigute ikastaroaren inguruko xehetasunak.

**LANDUKO DENA**

***“Hastear den ikastaroan, autoestima eta emozioak landuko dira. Teoria ematen da, apunteen bidez. Eta gero, askotan praktika egiten dugu”***

**Josune Estella:** Niretzat baita. Lehenengo tailerraren amaieran hasi nintzen, ahizpak animatuta. Probatzeko hasi nintzen, eta hiru urte pasatxo daramatzat.

**Ikastarook arrakastatsuak suertatu dira hasieratik.**

**J.E.:** Bai, eta batez ere emakume ezberdinak ikustea harrigarria da. Inguruko herrietatik ere etorri izan dira. Horrek dena esaten du.

**Zer lanketa mota egiten duzue?**

**J.E.:** Gai desberdinak lantzen dira. Hastear den ikastaroan, autoestima eta emozioak landuko dira. Badakigu emakumeon autoestima nolakoa den, gure heziketa eta bizitzagatik. Orain arte, beste gai batzuk ere landu dira; ezkutatu ohi dugun dolua nola egin, zer eta nola komunikatu… Tresnak lantzen dira. Teoria ematen da, apunteen bidez. Eta gero, askotan praktika egiten dugu. Daramagun motxila arintzen laguntzen du. Barrua hustu eta gauzak ateratzeko lagungarria da.

**G.Z.:** Meditazioa ere landu genuen, egunerokoa bizitzeko pautak, etorkizunari begira egon gabe.

**Ikastaro hauen bideratzaile Pepa Bojo, nola aurkeztuko zenigukete?**

**G.Z.:** Pertsona berezia da, oso irekia, alaitasuna transmititzen dizu, energia oso ona duen pertsona da. Saioetan teknika ezberdinak nahasten ditu; dantza, masajea… Maitagarria da eta gustura gaude.

**J.E.:** Konfiantza helarazten du, pertsona positiboa da. Duzun onena ateratzen du, epaitu edo kritikatu gabe. Ondo sentitzen zara. Beti irribarretsu dago, beti ulertua sentitzen zara berarekin. Gai hauek lantzeko oso profesional ona da. Beti laguntzeko prest dago.

# Adin guztietako emakumeei zuzendua

**Ikastaroan, taldean zaudete baina bakarkako lanak izango du lehentasuna. Nola uztartzen dira bi lanketak?**

**Garbiñe Zaldua:** Lan pertsonala da, baina ondokoak dioena ere iristen zaizu. Ondoan dagoena zure ama izan daiteke, eta berak esaten dituenarekin, agian alabaren paperean jar zaitezke eta hobeto uler dezakezu zure ama. Neuretzat horregatik da aberasgarria.

**Urtarrilaren 21ean abiatuko den ikastaro hau nori aholkatuko zeniokete?**

**G.Z.:** Adin guztietako emakumeei, denentzako baliagarria da esperimentatzeko, deskubritzeko.

**Josune Estella:** Edozein emakumeri. Benetan pentsatzen dugu beharrik ez dugula, baina oso ondo etortzen zaigu. Zuk bizi edo sentitzen duzuna besteekin partekatzeko gune bat da. Eta beti dugu ikasteko besteengandik.

**Argi denez, ikastaroak eragiten du norbere bizimoduan?**

**G.Z.:** Hori da helburua. Teorian ez geratzea, praktikan jartzea. Praktikan edozein esparrutan jar daiteke. Norberak bere buruarekin, familian, lagun artean, lantokian…

**J.E.:** Asko ikasten da besteen lekuan jartzen.

## Autoestima eta ahalduntze tailerra

■ Bideratzailea: Pepa Bojo, psikologo eta psikoterapeuta.
■ Zehaztasunak: “sexu/genero sistema aztertu eta emakumezkoen autoestimuaren eraikuntzan duen eragina aztertuko da. Helburu orokorra, emakumeen autogestioa, independentzia eta autoestimua sendotzea da, eta beraien barneko desio, sormen eta senarekin konektatzeko gaitasuna garatzea eta/edo indartzea”.
■ Saioen egutegia: ostegunero, urtarrilaren 21etik martxoaren 17ra.
■ Ordutegia: 17:00-19:00.
■ Tokia: Bake Epaitegi atzeko lokala.
■ Izen ematea: urtarrilaren 18ra arte, 943 377 110 edo parekidetasuna@usurbil.eus.
Nori zuzendua: autoestimua indartu eta norberaren autoezagutzan sakondu nahi duten 16 urtetik gorako emakumeei.
■ Antolatzailea: Usurbilgo Udala, Parekidetasun Saila.

# Ekonomikoki ere, “lortu dugu”

## #KILOMETROAK15 EGUNEKO BALANTZE BAIKORRA EGIN ETA HERRITARREN LANA GORAIPATU DUTE

Urriaren 4ko jaialdi erraldoiaren ostean, KMK15 egunaz eta bizi izan dugun urteaz baikor mintzatu ziren antolatzaileak, eguberri aurretik Sutegin deitu zuten ekitaldian. Oso pozik eta esker oneko agertu ziren Udarregi Ikastola eta Usurbilgo Udala, KMK15 ekimena baloratzeko saioan.

Hitzordu honetan bereziki, Gattunk urtearen alderdi ekonomikoa baloratu zuten. Eremu honetako helburuak ere bete dituztela baieztatu zuten, eginiko aurreikuspenak erraz gainditu dituztela. Behin betiko datu ekonomikoak maiatzerako espero dituzten arren, “lortu dugula badakigu” zioten antolatzaileek. Eta lorpen hau izateko, herritarrek eginiko ahalegina eskertu nahi izan zuten.



#Kilometroak15 eguneko irabaziak eraikin berria finantzatzeko baliatuko dira, besteak beste.

### Arropa eta errifa salmentak, giltzarriak

Dirua bide ezberdinetatik jaso da. Aipatzekoak, urtean zehar herritar mordoak arropa saltzeko Gipuzkoan barrena egin dituen txangoak, edota Gattunk Dendak izandako arrakasta. Eta arroparekin batera, saldu diren Gure Zozketako errifak. Hain zuzen, Kilometroak-ek izandako irabaziei batu behar zaizkie, ekimenak jokoan jarri zituen 60.000 euroak. Sariturik ez baita agertu azkenean.

> ANTOLAKETA BATZORDEA
>
> ***“Diru asko lortu da, zuek guztiok egin duzuen ahaleginari esker”, KMK15-eko ordezkarien esanetan***

### Eraikin berriaren finantziazioa

Irabazi ekonomikoei dagokienean, bestelako albiste onik ere izan dute azken aldian, ikastolan. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak inbertsioetarako eginiko diru-laguntza deialdi batera aurkeztu baitzen Udarregi. Sutegiko ekitaldian baieztatu zutenez, diru-laguntza “onartu zaigu”.

Emaitzokin eskutan, jasotako irabazi guztiokin, mailegua berriz negoziatzeko asmoa dute banketxeekin. Erabakitzeke dute, mozkinen ehuneko zenbat bideratuko duten eraikin berria finantzatzera. Irabazien zati bat ikastolak martxan duen proiektu pedagogiko berrirako ere baliatu nahi baitute.

## 60.000 bisitari, 1.600 laguntzaile

Kilometroak egunak emandakoa errepasatu zuten baita Sutegiko ekitaldian. 60.000 lagun batu zituen festan, 1.600 lagun aritu ziren auzolanean. “Kopuru oso handia” antolatzaileen esanetan. Eguneko irabaziei dagokienez, “ekonomikoki eutsi” zitzaiola adierazi zuten, “aldez aurretik eginiko gastuen kudeaketa zorrotzari esker”. Egunean zehar ospaturiko ekitaldiei dagokienez, Erronka nabarmendu nahi izan zuten. Gipuzkoako 24 ikastoletatik 21-ek parte hartu zuten, 450 bat ikasleek guztira. “Arrakasta handia” izan zuen.



Eguberrien atarian egin zuten #Kilometroak15-eko balantzea.

### Hondakinen bilketa

Urriaren 4ko festan sortutako hondakinen %91 gaika biltzea lortu zen. 7.750 kg guztira. 400 bat lagunek parte hartu zuten bizikleta martxan. Iturriko ura edatea ere sustatu zen lehen aldiz. Parekidetasunari dagokionez, eraso sexisten aurkako protokoloa landu eta prestatu zen urriaren 4rako, baina antolatzaileen esanetan, jai orduetan protokoloa ez zen aktibatu beharrik izan. Eta inklusibitateari dagokionez, aipatzekoa denongan eta denontzat prestaturiko zirkuitua, eta urriaren 4an antolaturiko hainbat ekimen.

### Balio handiko urratsak

Baloreotan urratsak eman direla diote, bai ikastolan, jaian eta herrian. Hezkuntza komunitatea trinkotuagoa dagoela, ikastolaren eta Udalaren arteko harremanak sendotu direla eta elkarlanerako ate berriak ere ireki direla erakundeekin.

## “Lanketarekin segi beharra dago”

Xabier Arregi alkateak zioenez, herri izaera sendotzea ekarri du Kilometroak15-ek. Udalerritik kanpora baloreetan oinarrituriko herri marka egokia “saltzea”, “aukera baliatzen jakin dugu” antolatzaileen esanetan. Balio egokiak indartu, desegokiak neutralizatu eta ikastola “herrigunean jartzeko balio izan du”.

Lanketa honek etorkizunerako oinarri on bat utzi du, eta orain, ereindako horretan sakontzea egokitzen dela azpimarratu zuten. “Lanketarekin segi beharra dago, iraunkorrak izan behar dugu”, zioten Sutegiko ekitaldian. Eta bide horretan, herritarrak bidelagun behar dituztela gogorarazten dute.

## Udarregikoak, kalejiran



Haur Eskola, HH, LH eta DBH-ko ikasle eta irakasleak, edo bestela esanda, Udarregi Ikastola osoak, kalejiran, kantuan eman zien ongi etorria gabonei. Eta oporrei. Abenduaren 18a ahaztua izango dute honez gero, ostegun honetan itzultzekoak dira eta klasera.

## Aginagako Eskola Txikia



Liburu eta eguneroko klaseak alboratuta, gabonetako jantzi eta kantu artean agurtu zuen ikasturteko lehen hiruhilekoa, Aginagako Eskola Txikiak. Aginagan barrena lau haizeetara zabaldu zuten, eguberriak heldu zirela. Irudia: Maria Angeles Arruti.

## Zubietan kantari



Giro ederra izan zuten Zubietako Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek, Santo Tomas Egunez. Txistor jan eder askoaren bueltan ospatu zuten abenduaren 21a, kantuan aritu ostean. Eta gero oporretara joan ziren.

## Zumarte Abesbatza



Ahots eder askoak ditugu Usurbilen. Eta ez diogu guk. Zilarrezko domina irabazi du Zumarte Abesbatzak eguberriotan, Oreretan ospaturiko 69. Gabon Abesti Sariketan. Azken hilabeteotako ahalegin itzelak, sari eder askoa ekarri die. Zorionak! Irudia: Zumarte.

## Kantu-jira berezia



Ikasleak izan ziren lehenak. Herriko taldeak abenduaren 24an. Kantu-jirak nonahi izan genituen Aginagan, Santuenean, Zubietan eta baita herri erdigunean ere. Ondoko irudian, Usurbilen Nahi Dugu bilguneak Kantu Taldearekin elkarlanean antolaturiko ekitaldia.

## Gazte Topaketak



Eztabaida, ezagutza eta iritzi zein esperientzien elkartrukeen gunean bilakatu ziren Ernai gazte erakundeak antolaturiko Gazte Topaketak. Tailer feminista, herriko presoen egoera, Libre dinamika edota okupa mugimendua izan zituzten mintzagai. Argazkia: Ernai.

## Errege Magoen bisita



Erregeen postariak nahikoa lan izan zuen, Meltxor, Gaspar eta Baltasar etorri aurretik, etxeko txikienen eskariak jasotzen. Urtarrilaren 5ean frontoira heldu orduko, herritar ilara luzea zuen zain.

## San Silvestre lasterketa



Usurbilgo merkatari eta ostalariak ezin esan babesle faltan direnik, jendetza batu baitzuen 6. Hurbilago San Silvestre Herri Lasterketak. Ekimen koloretsu eta anitza aurten ere, parte hartzeari dagokionean.

## 'Solo amor' poema liburua



Kalean da Xabier Uribe herritarraren "Solo amor" bere lehen olerki liburua. Senide eta lagunei pasarte batzuk irakurriz aurkeztu zien argitalpena, abenduaren 18an liburutegian ospatu zen ekitaldian.

## 'Betaurreko (u)moreak'



Nagore Uriarteren puntuei erantzunez, umorea eta emakumeen ahalduntzeari buruz jardun zuen Idoia Torregaraik, abenduaren 15ean Potxoenean egin zuten "Betaurreko (u)moreak" ekitaldian.

## Sortzaileen erakusleiho



Zorione Mendezek antolaturiko "Bi Txoriburu" proiektuaren bigarren zatiak, herriko sortzaileen lanak plazaratu zituen; iruditan, ezker eskuin, Ibai Arrieta, Peru Galbete eta Ion Markel Saez de Urabain euren irudi bildumak aurkezten, Sutegiko erakustaretoan.

## Gaztelekukoak telebistan



Gaztetxo askoren artean arrakasta izaten ari den ETB-ko "Gu ta Gutarrak" saioaren grabazioan egoteko aukera izan zuten Gaztelekuko DBH3 taldekoek. Gabonetarako antolaturiko ekimenetako bat izan zen. Irudia: Gaztelekua.

# Nagua Alba, Podemos: “Gure kulturaren eta gure hizkuntzaren defentsan aritu nahi dut”

Abenduaren 20an deitu zituzten Espainiako Hauteskunde Orokorretan, ezustekoa eman zuen Ahal Dugu-Podemos alderdiak. Hego Euskal Herrian eta, neurri berean, Usurbilen bertan. Batere kanpainarik egin gabe, bigarren indarra izan zen Usurbilen. Herritar askoren hautua izan zenez, Nagua Alba Gipuzkoako zerrendaburuarengana jo dugu. Hauexek dira Aiurri zein NOAUA! aldizkariei egin dizkigun adierazpenak.



Ahal Dugu-Podemoseko Gipuzkoako zerrendaburu izan zen Nagua Alba. 690 bozkarekin, Podemos bigarren indarra izan zen abenduaren 20an Usurbilen.

**316.000 boto Euskadin, horietatik ia 100.000 Gipuzkoan. Abenduaren 20ko emaitzak hain onak izango zirela aurreikusi al zenuten? Edo zuek ere harriduraz hartu zenuten emaitza.**

**Nagua Alba.** Oso emaitza onak izan dira, bai. Oso gertuko kanpaina egin genuen, jendearengandik oso gertukoa. Modu horretan galdera askori erantzuna emateko aukera izan dugu, baina proposamen ugari jaso ere. Kanpainaren azken egunetan nabaritzen genuen gure aldeko giro on hori, irribarretsu hurbiltzen zitzaizkigun. Noski, Gipuzkoan lehen indarra izatea ezustekoa izan da.

**Zein da zuk egiten duzun balorazioa?**

**N. A.** Aldaketa prozesu batean murgilduta bizi gara, aro bat amaitzen eta beste bati hasiera ematen ari gara. Gipuzkoako kasuan, zehazki, bi elementu garrantzitsu aipatuko nituzke. Hasteko, eskubide sozialen defentsa garrantzitsua egin dugu. Gipuzkoan PSE indartsu dagoen herrietan azken urteetan ez dituzte gauzak ondo egin eta jendeak konfiantza beste alderdi batzuri eman dio. Eta, bestalde, lehen aldiz estatu mailako alderdi batek Euskadi eta Euskadin dauden eskaerak kontutan hartu ditu. Euskadiri garrantzia handia eman diogu, nahiz eta hauteskundeak orokorrak izan. Erabakitze eskubidearen inguruan adierazi duguna oso garrantzitsua izan da, batez ere Katalunian bizi izan den esperientziarekin.

> NAGUA ALBA
>
> ***“Gipuzkoako kasuan, bi elementu garrantzitsu aipatuko nituzke. Batetik, eskubide sozialen defentsa garrantzitsua egin dugu. Eta bestetik, lehen aldiz estatu mailako alderdi batek Euskadi eta Euskadin dauden eskaerak hartu ditu kontuan”***

**Eskubide sozialak eta erabakitzeko eskubidea, orden horretan aipatu duzun moduan ala maila berean?**

**N. A.** Maila berean jarriko nituzke. Gure mezuarekin oso herri ezberdinetan irabazi dugu: Astigarraga, Arrasate, Eibar, Irun... Bi mezuen artikulazioa ona izan dela esango nuke.

**BECen Iñigo Errejonekin batera eman zenuten mitinean esperientzia handiko trajedunen anekdota hori errepikatuko al zeniguke?**

**N. A.** Gaur gaurkoz gizarte matxista batean bizi gara, eta BECeko mitinean anekdota bat hizpide izan nuen. Politikan ematen ari naizen pausoetan trajedun gizonekin topo egin dut eta gaizki begiratu egin naute, arrotz eta deseroso sentiarazi arte. Azkenean deskubritu nuena izan zen beldurra eurena zela. Gizon horientzat oso deserosoa da neu hor egotea. Gauzak aldatzen ari diren seinalea da ni euren artean egotea. Eta beldurtu egin dira.

**Lortu duzuen emaitzarekin aurrerantzean zuekin jende askoz gehiago sentituko da deseroso...**

**N. A.** PNVkoak ere gizon eta trajedunak dira! Kar, kar. Egia da Hauteskunde Orokorrak ezberdinak direla, ez dute zerikusirik Foru eta Udal hauteskundeekin. Hauteskundeen arabera botoa ezberdina izaten da, baina noski, dagoeneko aktore garrantzitsu bilakatu gara Euskadin. Indartu egin garela bistakoa da. Protagonista izango gara hurrengo hilabeteetan.

## “Kontzertu Ekonomikoa onuragarria eta solidarioa da”

**Gipuzkoako Batzar Nagusietan ika-mika garratza izan zenuten PSE-EErekin euskal gatazkaren harira.**

**N. A.** Sozialistena penagarria da, biktimak erabiltzen dituzte gure aurka jotzeko eta hori ez zait batere ondo iruditzen. Gure alderdiaren baitan gatazkaren esperientzia ezberdinak bizi izandakoak daude.

**Zein izango da zure lana Kongresuan?**

**N. A.** Nazio aniztasunaren kontuekin aritzea desio dut. Gipuzkoarra naiz eta gure kulturaren eta gure hizkuntzaren defentsan aritu nahi dut. Kongresuan euskaraz hitz egin ezin izate hori ez zait batere ondo iruditzen. Horrez gain, gazteen eta berdintasunaren alorretan ere lan egin nahiko nuke.

**Kontzertu ekonomikoaz zein iritzi duzu?**

**N. A.** Onuragarria eta solidarioa da. Euskaldunon artean, gainera, onespen maila oso handia da.

### “Erraustegia kaltegarria da osasunarentzat”

**Zubietan erraustegia jartzekotan dira. Zein da zuen alderdiaren posizioa?**

**Nagua Alba.** Erraustegiarekin txapuza galanta egin da, sekulako dirutza xahutuz. Atzera egin zuten, eta orain berriro martxan jarriko dutela dirudi. Osasunarentzat oso kaltegarria da, eta aztertu beharrekoa da. Ez da hain beharrezkoa, Gipuzkoan asko birziklatzen baita. Ondo aztertu beharko litzateke dena, eta azken erabakia hiritarren esku utziko nuke.

### “Dispertsioa oztopo da elkarbizitzarako bidean”

**Kanpainan zehar, Martuteneko espetxearen aurrean presoen gerturatzea eskatu zenuten.**

**N. A.** Aipatzen duzun ekitaldi horretan bakea eta elkarbizitzari buruz hitz egin genuen. Berriak gara, eta Podemosen baitan esperientzia ezberdinak bildu dira. Gure ustez, elkarbizitzaren alde dagoeneko herritarrek aurrerapauso handiak eman dituzte eta alderdi tradizional asko euren arteko ika-mikatan atzean geratzen ari direla iruditzen zaigu. Alderdi horien garaia iritsi da, gizartearen maila berean jar daitezen. Aurrerapauso gehiago eman behar dira, noski. Biktima guztiek errekonozimendua behar dute, eta presoak Euskal Herrira gerturatu beharko ditugu. Dispertsioa beste oztopo bat da elkarbizitzarako bidean.



Iñigo Errejón eta Nagua Alba, BECen eskaini zuten mitinean.

### Erabakitze eskubideaz

**Erabakitze eskubidea defendatzen duzue, Espainia hautsi gabe. Herriari galdetzearen alde zaudete baina ez Euskal Herriak Espainiatik alde egiteko.**

**N. A.** Estatu mailako alderdia gara eta gure apustua denok eroso egongo garen herrien herri bat eraikitzea da. Baina noski, erabaki hori ez da alderdi batena. Hiritarrek bere herriaren etorkizunari buruz erabaki beharko dute. Gu galdera egitearen alde gaude. Noski, Espainiatik bereizi nahi duenak ere eskubide osoa dauka Espainiatik bereizteko.

### “Indartsua izan da gure agerpena, ondo errotuta gauden seinale”

**Andoainen, Urnietan eta Lasarten garaile izan zarete. Hernanin eta Usurbilen bigarren indarra. Zuen emaitza ‘koiunturala’ dela dioenari, zer erantzungo zenioke?**

**N. A.** Emaitzak homogeneoak dira, Euskadi osoan zehar. Indartsua da gure agerpena, ondo errotuta gauden seinale. Podemos ez da indar koiunturala, emaitzek hori adierazten digute.

Datozen hilabeteetan ikusiko da Madrilen nola egiten dugun lan, baina garrantzitsuak eta protagonistak izango garela zalantzarik ez izan.

## EHBilduk, PSEk eta IUk galdutako indarra Podemosek baliatu zuen Usurbilen

| | 2015 | | 2011 | |
|---|---|---|---|---|
| | Botoak | % | Botoak | % |
| EH BILDU | 1.362 | 42,46 | 1.872 | 58,94 |
| PODEMOS | 690 | 21,51 | - | - |
| PNV | 616 | 19,20 | 542 | 17,07 |
| PSE-EE | 255 | 7,95 | 388 | 12,22 |
| PP | 139 | 4,33 | 195 | 6,14 |
| CIUDADANOS | 66 | 2,06 | - | - |
| IU | 40 | 1,25 | 86 | 2,71 |
| PACMA | 13 | 0,41 | 8 | 0,25 |
| LIBERTATE NAFARRA | 3 | 0,09 | - | - |
| UPyD | 2 | 0,06 | 22 | 0,69 |
| RECORTES CERO-G. VERDE | 1 | 0,03 | - | - |
| EQUO | - | - | 29 | 0,91 |
| PU M+J | - | - | 4 | 0,13 |
| U.C.E. | - | - | 2 | 0,06 |
| Zuriak | 21 | 0,65 | 28 | 0,88 |
| Baliogabeak | 11 | 0,34 | 20 | 0,63 |
| Parte-hartzea | 3.219 | 68,83 | 3.196 | 68,16 |
| Abstentzioa | 1.458 | 31,17 | 1.493 | 31,84 |




### EH Bildu

Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan, EH Bilduk emaitza txarra lortu zuen. Hala ere, koaliziorik bozkatuena izaten jarraitzen du Usurbilen. Duela lau urteko emaitzekin alderatuz, ordea, 510 bozka gutxiago batu ditu oraingoan. Beherakada nabarmena izan arren, beste herri batzuetan baino gutxiago jaitsi da Usurbilen. Alegia, danbatekoa beste toki batzuetan baino txikiagoa izan dela hemen.

### Ahal Dugu-Podemos

Beherakada horren pare dago Ahal Dugu-Podemosen igoera. 690 bozka batu zituen alderdi moreak eta emaitza horrekin bigarren indarra izan da Usurbilen. Aurreikuspen baikorrenak gaindituz ziurrenik.

### EAJ-PNV

Hirugarren alderdi bozkatuena EAJ-PNV izan zen: 616 jaso zituen alderdi jeltzaleak. Duela lau urte aurkeztu ziren alderdien artean, botoetan igo den bakarra da EAJ. Beste guztiek behera egin dute: Amaiur/EH Bildu, PSE, PP, IU…

### PSE-EE

2011 eta 2015eko emaitzak alderatuz, Alderdi Sozialistak botoen herena galdu du. 255 botoekin bada ere, alderdi sozialistak oraindik bere oinarria baduela agerian geratu da.

### PP eta Ciudadanos

Alderdi Popularrak 56 bozka galdu ditu eta Ciudadanosek 66 erdietsi. Akaso irakurketa sendoago bat mereziko luke, baina batek galdutakoa besteak jaso duela ondorioztatu daiteke.

### Abstentzioa, %31

Gainontzean, partehartzea duela lau urtekoaren parekoa izan da. Eta hortaz, abstentzioa ere berdintsu ibili zen, %31ren bueltan.









*Senitarteko ekitaldiak (Ezkontzak, bataioak...)*





## ENPRESEN EKITALDIAK ( BILERAK, INZENTIBOAK...)

· BILERA GELAK, 200 LAGUNENTZAKO LEKUA.
· INTERNET ABIADURA HANDIAN ETA BUSINESS FACILITIES ZERBITZUA ( AHOLKULARITZA, IKUS-ENTZUNEZKOAK, INFORMATIKAKO TRESNAK ALOKAIRUAN, AZAFATAK...)
· ESKUALDEKO ENPRESEI TARIFA BEREZIAK ( ORIO, USURBIL...)
· MENU EXEKUTIBOA, EGUNEKO MENUA, ASETEBURUKOA...



aisia
ORIO

*Hondartza bidea 1, Orio 943 89 44 40 orio@aisiahoteles.com*



Iñaki Iturain, Karkara

# Mapileko San Joseko altxorra

Kolonbiako presidente Juan Manuel Santosek adierazi zuen hedabideen aurrean azaroaren 27an Karibeko itsaso hondoan 400 metrora, Cartagena de Indias-etik 30 miliara, itsasontzi bat aurkitu dutela Kolonbiako Antropologia eta Historiako Institutukoek, orain 300 urte inguru hondoratutako San Jose ontzia. Presidenteak esan zuenez, hondoratutako ontzi batek sekula gorde duen altxorrik handiena du barruan.

Geroztik jakin dugu San Jose itsasontzia Oria ibaiko ontziola batean eraikia izan zela, Aginagako Mapilen. Pedro Arostegik eraiki zuen San Jose galeoia. XVII. mendearen bukaeran 1.200 tona eta 40 metroko luzerako bi ontzi berdin eraiki zituzten, San Jose eta San Joaquin, Espainiako koroak eskatuta. 1697an, Pedro Arostegi, barkua egiten hasita zegoela, hil egin zen, eta hurrengo urtean, haren seme Pedro Franciscok amaitu zituen lanak, 1698an.

Ontziek bi kubierta zituzten, gaztelua eta 70 kainoi eramateko nahikoa toki, Indietara joan-etorrian zebiltzan itsasontzien zaintzarako nahi zituen Espainiako Armadak, \`kapitana´ eta \`almiranta´ izateko. Mapilen uretaratuta, Orioko barratik itsasoratu eta Pasaiara eraman zituzten bi ontzi bizkiak, eta handik, 1699an, Cádizera. Han, ingelesen kontrako Gibraltarreko borroketan ibili ziren. Gero, 1706an, Mapileko bi ontziak Cádizetik Ameriketara joan ziren 10 merkantzia-ontzik osatzen zuten flota zaintzen, 41 eguneko bidaian.



**Ingelesen kainoikadek hondoratu zuten San Jose ontzia. 1708ko ekainaren 7an izan zen. Samuel Scottek koadro honetan jaso zuen gatazka. Hondoratzen ari dena da San Jose.**

*IÑAKI ITURAIN*

***"Mapil, San Jose, Arostegi… Oriarekin zerikusi zuzena duten osagai asko ditu itsasoko historiako pasarteak"***

Hainbat gorabehera izan eta gero, 1708ko maiatzaren 28an espainiarren flota, tartean San Jose eta San Joaquin ontziak zirela, Panamako Portobelotik Kolonbiako Cartagenara aldera abiatu zen, gero handik Habanatik barrena Espainiara itzultzeko. Flotak bere 22 milioi urrezko eta zilarrezko txanpon zeramatzan, espainiarrek Cartagenara Perutik ekarriak. San Jose ontziak berak, haietatik 7 eta 11 milioi arteko txanpon, bakoitzak garaiko 8 ezkutuko balioa zuela. Gaurko dirutara ekarrita 2.000 eta 5.000 milioi dolarren artean ibiliko litzateke ontziak zeraman altxorraren diru-balioa. San Josek, altxor harekin batera, 600 lagun zeramatzan ontzi barruan, eskifaia eta bidaiarien artean, eta bestelako merkantzia batzuk.

Ekainaren 7an, Cartagenara iristen ari zirela, portutik 30 bat miliara, ingelesen flotak eraso egin zion espainiarrenari. Ingelesen \`Expedition´ ontziak San Jose ontziaren kontra egin zuen, hura abordatzeko asmotan, kanoikada batzuk jaurti zizkion, masta nagusia eraitsiz. Ordu eta erdiko borrokaren ostean, beste kanoikada baten ondorioz, kubiertan 64 kainoi zeuzkan San Joseren barruan sekulako eztanda gertatu zen eta, oso denbora gutxian, ontzia hondora joan zen, barruan zeraman altxorra berekin eramanez. Barkuan zihoazen 600enetatik 11 bakarrik atera omen ziren bizirik.

Eraso hartan Mapilen egindako beste ontzia, San Joaquin, harrapatu egin zuten ingelesek eta zeraman karga guztia kendu. Bi ontzietako komandante espainiarrak hilda suertatu ziren borrokaldian. Espainiarren flotako ontzi gehienak, hala ere, onik iritsi ziren ihesean Cartagenako portura.

Kolonbiako presidenteak esan zuenez, Cartagenan museo bat jartzeko asmoa dute itsasontzitik atera litzaketen objektuak erakusteko. Orain auzi nagusia da San Josek barruan gordeta daukan urrezko altxor izugarriaren jabe nor izango den: Kolonbia, Espainia, Peru…

Mapil, San Jose, Arostegi… Oriarekin zerikusi zuzena duten osagai asko ditu itsasoko historiako pasarteak. Horregatik ekarri ditugu idatzi honetara.









# Eguneko Zentroa handitzeko Foru Aldundiaren laguntza jasoko du Udalak

Zehazki, 23.110 euroko diru-laguntza emango dio Gipuzkoako Foru Aldundiak Usurbilgo Udalari, Kalezarren kokatua dagoen Puntapax Eguneko Zentroa handitzeko, 6 plaza berri sortzeko. Aldundiak adinekoen zein desgaitasuna duten herritarren Gipuzkoako zentro ezberdinetara bideratuko dituen 912.000 euroko diru partidaren baitan kokatzen da Eguneko Zentroak jasoko duen laguntza.

Ia milioi bat euroko inbertsioa, helburu argi batekin onartu berri du Diputatuen Kontseiluak; mota honetako zentroen instalakuntzak hobetu nahi dituzte, guneotan plaza berriak sortzeaz gain. Honela banatu dute 912.000 euroko laguntza:

- Oreretako Sanmarkosenea egoitza: 525.000 euro.
- Eskoriatzako Nuestra Señora de las Mercedes egoitza: 75.000 euro.
- Donostiako Gautena elkartea: 90.000 euro.
- Oiartzungo Petra Lekuona egoitza: 70.000 euro.
- Goyeneche fundazioa: 50.000 euro.
- Usurbilgo Eguneko Zentroa: 23.110 euro.
- Donostiako Gurutze Gorria: 78.890 euro.



6 plaza berri sortuko dira laguntza honi esker.

## 5 urterako hitzarmena sinatu dute Udalak eta euskaltegiak

Usurbilgo Udalak eta Etumeta-AEK euskaltegiak 5 urterako hitzarmena sinatu zuten abenduaren 15ean. Azken 10 urterako sinatua zutena ordezkatuko du.

Eguberri aurreko sinatze ekitaldia, azaroaren 24ko osoko ohiko bilkuran udalbatzak aipatu hitzarmena aho batez onartu ostean zetorren. Elkarlanerako dokumentu berri honekin, bi helburu nagusi bete nahi dituzte; euskaltegiaren aldetik, "Helduen Euskalduntze eta Alfabetatze-lanen eskaintza sustatzea". Eta Usurbilgo Udalaren aldetik, "Euskaraz Kooperatiba Elkartearekin (AEK) dirulaguntza-erregimena, bestelako zerbitzuak (Mintzalaguna, autoikaskuntza eta euskara azterketak egitea) eta lokalaren erabilpena arautzea".

**Euskaltegian matrikulatzeko deia**

"Urte berriarekin batera, euskara ikasi edo dakizuna hobetu nahi baduzu, aukera duzu Etumeta AEK euskaltegian. Euskalduntzeko maila guztiak, B1, B2, C1 edo EGA tituluak prestatzeko klaseak, ordutegi ezberdinetan edo autoikaskuntzan.


Helduen euskalduntze eta alfabetatze lanen eskaintza sustatzea izango da hitzarmenaren helburua.

Aprobetxa ezazu aukera! Egin euskara praktikoa!", Etumeta AEK euskaltegitik luzatu duten gonbita. Matrikulatzeko, idatzi usurbil@aek.eus helbidera edo deitu 607 609 379 helbidera. Informazio gehiago: muntteri.blogspot.com.es

### Yoga ikastaroa

Einean Guraso Eskolak antolatuta, urriaz geroztik martxan den yoga ikastaroan izen emateko epeak zabalik segitzen du. Ikastaroko saioak Bake Epaitegi atzeko lokalean izaten dira, egun eta orduotan:

- Asteartetan: 17:30.
- Asteazkenetan: 18:30.
- Ostegunetan: 10:00.
- Izena eman edo argibide gehiagorako: 636 71 15 14 (Katia).

### Futbola Haranen

**Urtarrilak 9, larunbata**

11:00 Infantil neskak:
Usurbil-Intxaurdi A
15:30 Jubenilak:
Usurbil F.T.-Lengokoak K.E.

**Urtarrilak 10, igandea**

17:00 Preferente taldea:
Usurbil F.T.-Beasain S.D.

### Eskubaloia Kiroldegian

**Urtarrilak 10, igandea**

09:00 Alebin neskak errendimendua. Entrenamendu saioa.
10:00 Alebin mutilak errendimendua. Entrenamendu saioa.
11:30 Senior neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Urnieta.
Oharra: behin behineko partiden eskaintza. Aldaketak egon daitezke.

### Pilota partidak

**Urtarrilak 8, ostirala, 20:00**

Udaberri Txapelketa, Usurbilen
Kadete 3. maila
Pagazpe -Txapagain (Ordizia)

**EHko Klub Arteko Txapelketa**

Finalerdietarako sailkatu da Pagazpe. Igandean, Amezketako Larrunarri pilotalekuan, Huarteren aurka.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# Ikastaro berriak Oiardo Kiroldegian

Kiroldegiko abonua berritu edo aldatzeko garaia da orain. Bestalde, 2016rako lehorreko eta uretako ikastarook programatu dituzte Oiardo Kiroldegian.



Lehorreko nahiz uretako ikastaro ugari iragarri dituzte urte berrirako.

■ Zoru pelbikoaren gimnasia: zoru pelbikoa lantzeko eta gerriaren perimetroa txikitzeko teknika egokia da. Saioak: astearte eta ostegunetan, 17:00-17:40.

■ Aerobik-step: musikaren erritmoaren arabera egindako jarduera fisikoa da. Saioak: astearte eta ostegunetan, 20:15-21:05 artean.

■ Cycling: bizikletaren gainean eta musikaren laguntzaz egiten den jarduera. Saioak: astearte eta ostegunetan, 19:15-20:05.

■ Igeriketa entrenamendua: abiadura erresistentzia eta teknika landuz bakoitzaren egoera fisikoa hobetzen duen lan saioa, non baliagarria izango den kirol saioetarako... Saioak, otsailetik apirilera: astearte eta ostegunetan, 19:00-20:15 artean.

■ Haurdunei zuzenduriko igeriketa: ondoezak arindu eta erditzeko unean fisikoki indarrean egoteko prestatzen duen jarduera. Saioak, hilabetez: astearte eta ostegunetan, 15:30-16:20 artean.

Ikastarooz gain, irailean martxan jarritakoek segiko dute datozen hilabeteotan: zumba, cycling, pilates, mantentze gimnasia, yoga, 3.adina, igeriketa hastapena, hobekuntza eta gidatua.

## Abonua aldatzeko aukera

Kiroldegiko abonua berritu edo aldatzeko garaia da orain. Iraupen ezberdinetako abonuen artean aukera daiteke. Abonu mota ezberdinak dituzte baita; 18 urtetik beherakoentzat, 25 urtetik beherako ikasleentzat, jubilatuentzat, abonu familiarra...

"Zure azkeneko abonu mota aldatu nahi izanez gero, kiroldegira agertu behar izan gabe, 2016ko urtarrilaren 25a baino lehen jakinarazten badiguzu nahikoa izango da. Adierazpenik ezean, orain arte bezala jarraitu nahi duzula ulertuko dugu. Hala nahi izanez gero, zure urteko abonua helbideratu eta urtean bi zatitan ordaintzeko aukera daukazu", ohartarazi dute udal kirol zerbitzutik.

## Prezioak:

**Urteko bazkidetzak**

■ Banakako heldua: 158 euro.
■ Banakako gaztea: 99 euro.
■ Familiarra: 240 euro.

## Sarrerak:

■ 18 urtez gorakoak: 6 euro.
■ 18 urtez beherakoak: 3,70 euro.

## Erreserbak, zerbitzuak:

Squasha: 5,20 euro. Frontoia (argia barne): 17,20 euro. Sauna: 3,70 euro. Giltza hautsi edo galtzea: 5,20 euro. Karneta hautsi edo galtzea: 3,50 euro.

## Ordutegiak:

■ Urtarrila-ekaina eta iraila-abendua artean:
■ Lan egunetan: 7:00-12:30 / 14:30-22:20 (igerilekua 21:20ak arte).
■ Larunbatetan: 9:00-21:30 (igerilekua 21:00ak arte).
■ Jai egunetan: 9:00-13:30 (igerilekua 13:00ak arte).

## Uztaila eta abuztua:

■ Lan egunetan: 7:00-13:00 / 17:00-20:30.
■ Larunbatetan: 9:00-13:00.
■ Jai egunetan: 9:00-13:00.

## Jai-egunak:

■ Urtarrila: 1, 6.
■ Uztaila: 2, 3.
■ Abuztua: 1-28.
■ Abendua: 24-25, 31.

## Argibide gehiagorako:

943 372 498 / kirola@usurbil.eus
kirolak.buruntzaldea.eus
Facebook: Oiardo Kiroldegia
Kontu zenbakia: ES55 2095 5069 08 1064363541

## "Hotzak akabatzen" BTT probarako izen ematea irekita

Datorren edizioa, urtarrilaren 31n ospatuko da. Goizeko 09:30etan abiatuko dira hitzorduan parte hartzera animatzen diren kirolariak, frontoitik. Haientzat guztientzat izen emateko epea zabalik dago, urtarrilaren 29ra arte, kirolprobak.com atarian. 15 euro ordaindu beharko dituzte federatuek, 18 euro federatu gabeek.

Bi ibilbide daude aukeran: 25-30 km edo 40 km ingurukoak hain zuzen. Proba amaieran, bizikletak garbitzeko mangerak izango dira, dutxen zerbitzua Oiardo Kiroldegian, kamiseta bana opari, eta opari gehiago zozketetan.

Informazio gehiago:
andatzamendizale.info

## Usurbil KE, gabonetako zozketa

Gabonetako eskubaloi txapelketan eginiko zozketako zenbaki sarituak dituzue segidan:

■ 2 lagunentzako afaria Saizar sagardotegian: 4.115.
■ 50 euroko erosketa balea, Marije arropa dendarako: 1.796.
■ Arkumea: 7.329.

## Usurbil FT, gabonetako zozketa

"Sarituok, zuen sariak Haraneko tabernara gerturatuta jaso ditzakezue. Eskerrik asko parte hartzeagatik".

■ Mariskada: 6.808.
■ 2 lagunentzako afaria Artzabal jatetxean: 312.
■ 2 lagunentzako afaria Saizarren: 1.190.









## ETXEBIZITZA

### Salgai

Askatasuna plaza aldera ematen duen etxebizitza eta garaje marra salgai Kaxkoan. 3. solairua. 80 metro koadro, 3 logela, 2 komun, sukaldea, jantokia, egongela eta 24 metro koadro trasteroa. 269.000. 943 916 834.

Pisu bat salgai. 90 metro karratu. 3 logela, 2 bainugela, jan-egongela eta sukaldea jantokia aparte duela. 605 707 642.

Atikoa Zubietan, 110m2 erabilgarri. 2008an guztiz berritua, teilatuaren estruktura ere. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2-ko egongela. Haize egokitua. 225.000. 669781959 Julen

Pisua salgai Santuenean. Egoera onean. 3 logela, sukaldea, komuna eta nahi izan ezkero garaje moduko batekin. 659 460 979.

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Usurbilen edo inguruan eraikigarria den lur eremua erosiko nuke. 636393237

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea.Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

### Alokairuan

Pisu baten bila nabil, altzairuekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340

Piso bat kaxkoan, 3gela, egongela, sukaldea eta komun bat. Bi balkoi. 602503855 (17:00etatik aurrera).

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 702 264 / 686 143 786

Pisu bat Atxegalden, 3 gela, sukaldea, egongela, 2 komun. Dena kanpoaldera, 3 balkoiekin. 658 756 344.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

2 lagunentzako alokairuko pisu bila. Beheko solairua eta terrazaduna bada hobe. 610 73 59 64.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

## MOTORRA

### Salmenta, garajeak

Kale Nagusian, garaje itxi handi bat alokatzen da. 943 361 235.

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Baju komertzial bat salgai Erdiko kalean. 62 metro koadro, solairuarte batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekatxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaintzak

Antxetan, neska bat behar dugu asteburuetan zerbitzatzeko. Tel. 943 370344

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Emakume euskalduna eskaintzen da, ume txikiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsaldez, abendutik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567.

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketak egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jatetxeren batean harraskako garbiketak egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Lan bila nabil. Interna moduan eta umeak zaintzen. Tel. 645 530 490

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketan, plantxatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduak edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak.618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.



**Zorionak printzesa!!** Beste urte berri bat ospatzen duzula. Disfrutatu zure egunean. Etxekoen partetik.



**Zorionak Eñaut!** Ondo pasa dezazula urtarrilaren 8ko urtebetetze eguna. Muxu handi bat, Peru, Mattin, Iratxe, Lur eta familia guztiaren partez.



**Zorionak Xune!** Urtarrilaren 8an urte bat! Dantza-dantza egingo dugu! Familia guztiaren partez muxu asko!



**Zorionak Ibai!** Urtarrilaren 8an 3 urte beteko dituzu. Muxu handi bat eta ondo pasa zure egunean!

## Heriotzak

**Mª Jesus Zulaika Apaolaza**
81 urterekin hil zen abenduaren 15ean



**Inaxio Lizargarate Goenaga**
66 urterekin hil zen urtarrilaren 3an



**OHARRA:** Urtarrilaren 15ean aterako dugu hurrengo NOAUA!. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: urtarrilak 11 astelehena. E-postaz: erredakzioa@noaua.eus

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilarena ere. Lan prenbentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo hospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrak emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

**BESTELAKOAK**

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. 608 703 669

Urtebeteko ume baten zapata bat galdu genuen abenduaren 4an. Granate-berenjena kolorekoa, hosto berde pare batekin. See Kai Run markakoa, 5 talla. 639 469 577.

Bi ohedun haur logela berria salgai. "T" itxura duena. 100 euro. 675 007 048. Garbiñe.

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kiloa. 657 714 355

Ume txaketa bat galdu da (marroia) Askatasuna plaza-Atxegalde bitartean 943110954

8-10 urteko haur baten tamainakoa den sudadera gorri bat galdu dugu. Letra grabatu beltzak ditu. 676 82 33 11

Babarrun beltza eta babarrun motz zuria salgai. Usurbilgo erriberan eta botikarik gabe ekoiztutakoa. 2015 uzta. Tel: 65 777 01 31 (WhatsApp).

Memoria txartela galdu da argazki kamerarena, aurkitu baduzu eraman NOAUA!ra mesedez.

Bi "artzai txakur" oparitzen ditut. Bata lau urtekoa, etxea zaintzeko eta bere kumea, hiru hilabete eta erdikoa. Tel. 660 093 071.

Giltza batzuk agertu dira Bizkartxon. Galdu dituenak pasa NOAUA!tik, bertan ditugu eta.

Eguzki-elkartean bazkide egiteko aukera. Tel 677 62 14 65

Giltza batzuk galdu dira, erdigunean. NOAUA!n edo Udaltzaingoan uztea eskertuko nuke.

Bosch markako garbigailu bat salgai. Urte bete pasatxo dauka. Berri berria dago. Tel. 943 363 201.

Irailean Zubietako Lertxundi gainan aurkitu nituen betaurreko batzuk: 943362665.

3 katu oparitzen ditut, 3 hilabete eta erdi dituzte. Tel. 688 827 995.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688 888 176. Pablo.

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

# Telefono interesgarriak

| | |
|---|---|
| Udala | 943 371 951 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 |
| Haur Eskola | 943 374 061 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 |
| KZgunea | 943 023 684 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 |
| Etumeta AEK euskaltegia | 607 609 379 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 |
| Noaua! Kultur Elkartea | 943 360 321 |
| Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza) | 677 373 466 |
| Eusko Tren | 943 470 976 |
| LurraldeBus | 943 000 117 |
| Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Anbulategia | 943 362 013 |
| Oa botika | 943 376 076 |
| Iturralde botika | 943 363 395 |
| DYA | 943 464 622 |
| Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Emergentziak | 112 |
| Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Banco Popular Español | 943 370 411 |
| BBVA | 943 377 155 |
| Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Telefonica | 1004 |
| Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak Urtarrilak 07 - urtarrilak 17

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | **07** | ACHA-ORBEA | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| **Ostirala** | **08** | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Larunbata** | **09** | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Igandea** | **10** | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Astelehena** | **11** | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |
| **Asteartea** | **12** | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Asteazkena** | **13** | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Osteguna** | **14** | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Ostirala** | **15** | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Larunbata** | **16** | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |
| **Igandea** | **17** | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**https://www.cofgipuzkoa.com/**

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87
22:00 - 09:00

# Agenda urtarrila

## 09 larunbata

■ **Sagardogintza ikastaroa** 9:00etan Potxoenean. Izen ematea aurrez: Alkartasuna Kooperatiban, 943 361 114 telefono zenbakian edo alkartasuna@usurbil.com helbidean.

## 10 igandea

■ **Barazkidun Tipi-Tapa,** Aitzaga, Artzabal, Txiriboga, Txirristra eta Bordatxo tabernetan.

## 11 astelehena

■ **Odol-ematea,** 18:00etatik 20:30era anbulatorioan.

# Etxerako sagardoa ekoizten ikasteko aukera

Larunbat honetan egingo da ikastaroa, Potxoenean. Etxean sagardoa modu artisauan nola ekoitzi daitekeen ikasteko aukera izango da goizeko 09:00etan hasita. Alkartasuna Kooperatibak antolaturiko saioa, Zapiain Sagardotegiko Kalitate Arduradun Egoitz Zapiainek bideratuko du.

Ikastaroaren prezioa; 10 eurokoa, Alkartasuna Kooperatibako bazkideek doan. Kooperatiban bertan eman dezakezue ikastarorako izena, 943 361 114 telefono zenbakira deituta edo alkartasuna@usurbil.com helbidera idatzita.



**Ikastaroa Potxoenean egingo da, larunbat honetan goizeko 9:00etan hasita.**

## KzGunea, datozen ikastaroak

■ Urtarrilak 21-26: 16:00-18:00, Facebook.
■ Urtarrilak 27: 16:00-18:00, Twitter.
■ Urtarrilak 28: 16:00-18:00, Youtube.
■ Urtarrilak 29: 16:00-18:00, Wikipedia.
■ Otsailak 1-12: 09:00-11:00, Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi (erdaraz).
■ Otsailak 15-26: 09:00-11:00, Ofimatika tresnak-LibreOffice (erdaraz).
Informazio gehiago: 943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

## Euskaltegian matrikulatzeko deia

"Urte berriarekin batera, euskara ikasi edo dakizuna hobetu nahi baduzu, aukera duzu Etumeta AEK euskaltegian. Euskalduntzeko maila guztiak, B1, B2, C1 edo EGA tituluak prestatzeko klaseak, ordutegi ezberdinetan edo autoikaskuntzan. Aprobetxa ezazu aukera! Egin euskara praktikoa!", Etumeta AEK euskaltegitik luzatu duten gonbita.

Matrikulatzeko, idatzi usurbil@aek.eus helbidera edo deitu 607 609 379 helbidera.

Informazioa: muntteri.blogspot.com.es

## Datozenak

### Kantu Taldearen ikastaro berria

Gabonetako etenaldiaren ondoren, Kantu Taldeak urtarrilaren 12an ekingo die berriz entsegu saioei. Urtea hastearekin batera, abiatuko dute ikastaro berria (izen-ematea: 10 euro). Saioak asteartero, 18:30-19:30 artean, Udarregi Ikastolako kantu gelan.

**Lehen kantu-jira, urtarrilaren 30ean**

Urte berriko lehen kantu jira bestalde, hilaren 30ean, iluntzeko 19:00etan, Mikel Laboa plazatik abiatuta.

### Danborrada saioak ikastetxeetan

San Sebastian Egunaren bueltan danborrada saioak egin ohi dira ikastetxeetan. Udarregi ikastolan, urtarrilaren 19arekin egingo da danborrada.

### "Ametsen liburua", aurkezpen ekitaldia

Durangoko Azokaren atarian plazaratu zen liburua. Urtarrilaren 21ean, Sutegin aurkeztuko da. Usurbilgo preso ohiek eta Jokin Urain liburuaren koordinatzaileak hartuko dute parte aurkezpen ekitaldian. Arratsaldeko 19:00etan, Sutegin.

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno.943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ELORZA
OBRAK ETA ERREFORMAK S. L.
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



Rafa
iturgindegia
· Iturgin lan orokorrak
· Dutxako manparak
· Konfindatzazko gremioak
· Komuneko altzariak
Bordaberri kalea 1, 1 behea • 943 36 80 04




B&a
Inmogest
FINKA ADMINISTRATZAILE
ASESORIA ZERBITZUA
INMOBILIARIA
ASEGURUAK
943 573 693
Baxoalde 4 behea, ORIO




Ontzi arinak ondo bereizteko zenbait gomendio
BAI
Komertzioetako plastiko poltsa
Kafe kapsulak hustu
Albal papera
Aerosolak
Erabili-hustutzeko lorontziak
Plastikozko botilak, letak eta tetrabrickak
Marrubien egurrezko kaxa txikiak
EZ
Medikamentu kondarrak
Ontziak likidoarekin (hustu eta tolestu)
Tonerrak
Lorontzi finko gogorrak
Plastikozko eskularruak
Jostailuak
ECOEMBES
garbitania
Astigarragako Udala


URDAIRA
URDAIRA
IREKIERA:
urtarrilaren 16an, larunbata
astelehenak itxita
Aginaga 943 37 26 91


OTSUA-ENEA
SAGARDOTEGIA
943 55 68 94
Osinaga bailara, HERNANI


LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik maiatzak 1era
TXOTX GARAIA
Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867


✆ 943 36 12 29
iruin
sagardotegia
IREKIERA:
urtarrilak 9, Larunbata
eguerdian
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com


ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ✆ 943 55 69 81


SAIZAR
Kale-zahar auzoa, 39
USURBIL
Sagardotegiko erreserbak:
943 37 39 95
(Igande gaua eta astelehen eguerdia itxita)
SAIZAR
Sagardotegia
www.sidrassaizar.com


SAGARDOTEGIA
aginaga
Hotela * *
URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIK!
ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA
943 36 67 10
Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com


Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!
Urtarrilaren 15ean, ostirala
irekitzen dugu!
AIALDE
BERRI
%100 bertako sagarra
Tel: 943 365 031
Santuenea